

BELDUR BARIK 2025

2025eko Beldur Barik lehiaketa martxan dago!

Lagun hori:

Udazkenarekin batera, abian da **Beldur Barik 2025 bideo lehiaketa**. Programa hau Euskadiko erakunde guztiek bultzatzen dute, eta, urtez urte finkatzen ari da indarkeria matxista prebenitzeko gazteen artean egiten den programa integrala modura. Emakundek eta Eudelek sortu zuten 2009an, berdintasunaren aldeko euskal udalerrien Berdinsarearen barruan. Gaur egun, Emakundek du programaren lidergoa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien finantzaketa du, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren lankidetzaren ere bai.

Programak lan-ildo zuzena ezartzen du gazteekin. Beldur Barik jarrera indarkeria matxistaren eta indarkeria hori erreproduzitzen duen kulturaren aurkako jarrera irmoa erakusten duten adierazpenen multzoari dagokio. Jarrera hori sustatzeko asmoz, programak hainbat baliabide ditu, eta nagusia [ikus-entzunezko lehiaketa](#) eta ondorengo [topaketa eta sari-banaketa](#) dira.

Ikus-entzunezko lehiaketaren XVI. edizioa da honakoa eta **12 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago**. Izen-emate epea **irailaren 22tik azaroaren 9ra arte** egongo da zabalik. Aurten bi adin tarte egongo dira, 12-16 eta 17-20, eta adin tarte bakoitzean bi kategoria: talde lanak eta bakarkako lanak. Lehiaketaren oinarriak eta informazio guztia [hemen](#) topa dezakezue.

Idatzi honen bidez laguntza eskatu nahi dizuegu lehiaketa eta programatutako ekintzak zabal dezazuen.

Organiza:



Impulsan:



Colaboran:



Beldur Barik-en azken helburua euskal gazteriaren gehiengoari Beldur Barik Jarreraren mezua helaraztea da, eta horretarako komunikazio kanpaina indartsu bat prestatu dugu. [Hemen](#) dituzue kanpainako bitarteko guztiak erabiltzeko. Komunikazio-material gehiago behar izatekotan, jarri harremanetan info@beldurbarik.eus korreoa.

Era berean, gazteriarekin lanketak egiteko material pedagogiko interesgarria bildu dugu [gure webgunean](#). Tresna horiek baliagarriak izango dira gazteekin berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren prebentzioan lan egiteko.

Emakundek zuen esku jartzen du aholkularitza eta laguntza zerbitzua, sor daitezkeen zalantzak argitzeko: Programaren Idazkaritza Teknikoarekin (Parean Elkarte): 843 740 288 / info@beldurbarik.eus

www.beldurbarik.eus

Organiza:



Impulsan:



Colaboran:

